

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

VITORIA-GASTEIZKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE VITORIA-GASTEIZ

UPV/EHUren VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2024-2027

Eskolako Batzarrak onartua
2024ko martxoaren 25ean

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Metodologia
3. Eginkizuna
4. Ikuspegia
5. Balioak
6. Helburu orokorrak
7. Zeharkako ardatzak
8. Ardatz estrategikoak
9. Adierazleak
10. Lantaldea

1. SARRERA

UPV/EHUko Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolak (aurrerantzean VGIE) 2024-2027 urtealdirako diseinatutako Plan Estrategikoa aurkezten da dokumentu honetan. VGIEko Plan Estrategikoaren bidez, jarraitutasuna eman nahi zaio 2020/2021 ikasturtetik indarrean egon den planari, UPV/EHUren 2022-2025 urtealdirako Plan Estrategikoaren ardatz eta ekintzak txertatuta.

Plan Estrategiko honen bidez, Ikastegiko jarduna ardaztuko duten ildo nagusiak ezarri nahi dira, betiere ikerketa bultzatzera eta industria nahiz jendartearekiko lankidetzara sustatzera begira. Horregatik, kontuan izan dira Graduondoko Ikasketen II. Plan Estrategikoan (2023-2026) eta Euskararen Plan Gidarian ezarritako ildo nagusiak.

2. METODOLOGIA

Plan Estrategiko honetan, enpresa eta erakundeek egindako ekarpenak jaso dira eta, edukia aberasteko, kontuan hartu dira Ikastegiko Kalitate Batzordean eta Eskolako Batzarrean ordezkaturako interes taldeen askotariko ikuspegiak ere.

Hona hemen gogoeta estrategikoaren prozesuan jarraitu diren faseak: lehenengo fasea, GEEaren izateko arrazoia aztertzean eta gauzak nola egin nahi diren eta nora iritsi nahi den zehaztean datza; bigarrena, egungo egoera, GEEaren ingurunea eta barne-gaitasunak aztertzen dituen; hirugarrena, aukera estrategikoak ezartzen dituen, horietako bakoitza ebaluatuz eta hautatuz; eta azken fasea, Plan Estrategikoa landuz hartutako erabakiak abiaraztean datzana, non ildo estrategikoak, ekintzak eta adierazleak sartu diren.

3. EGINKIZUNA

UPV/EHUko ikastegi bat da Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola, eta haren helburu nagusiak dira ezagutza sortu, garatu eta transmititzea eta ingeniaritza arloan ikerketa babestu eta bultzatzea, betiere enpresa sarearekiko lankidetzan. Profesionalen prestakuntza integrala sustatzeaz arduratzen da Ikastegia, eta ikasleen sormena, iniziatiba, jarrera kritikoa, berritzeko gaitasuna, etengabeko hobekuntza eta ingurura egokitzeko gaitasuna bultzatzen ditu, betiere jendartearen sortuz doazen beharrianak asetzerara begira eta kalitatea, jasangarritasuna eta jendartearekiko erantzukizuna oinarri hartuta.

Horretarako, prestakuntza eskaintza zabala du Ikastegiak, inguruko enpresa eta erakundeekin etengabeko lankidetzan oinarrituta, eta, haren bitartez, azken aurrerapen eta garapen teknologikoekin harremanetan egoteko aukera eskaintzen zaie ikasleei. Era berean, zentroko giza baliabideei, ekipoei eta instalazioei esker etengabe bultzatzen da ikerketa.

4. IKUSPEGIA

Plan Estrategikoak hartzen duen aldia amaitu ondoren lortu nahi den helmuga definitzen du ikuspegiak. Erronkak planteatu behar ditu, baina, aldi berean, neurgarria eta lorgarria izan behar du. VGIEk lortu nahi dituen emaitzekin lotuta dago, eta kontuan hartzen du zer nolako harrera espero den ikasleen, UPV/EHUren, enpresa sarearen, erakundeen, komunitate zientifiko eta teknologikoaren eta, oro har, jendarte osoaren aldetik.

Hala, VGIEk honako helburu hauek ditu:

1.- Ikasleek kalitatezko prestakuntza jasotzea eta, Ikastegian trebatu ondoren, lortzen duten lanpostuan erreferente izatea eta etorkizunean sortzen zaizkien erronkei behar bezala erantzuteko gai izatea, jarrera etiko eta sortzailea agertuz etengabe aldatzen den eta gero eta exijentzia maila handiagoa duen inguru batean. Prestakuntzaren bitartez, bikaintasuna lortu nahi da Ikastegian, betiere ingeniariaritzako eskaintza akademikoaren kalitate eta aniztasuna bermatuta, eta jendartearen eta enpresa sarearen beharrezkoen arabera egokituta.

2.- Ikastegiko langileen nahiz ikasleen profila sendotzea, hala ikerketari nola sormenari dagokienez, jendartearen bitartez eraldatu ahal izateko. Duen potentziala dela bide, ikerketa arloan erreferente izatea lortu nahi du ikastegiak; izan ere, ikerketa proiektuetan parte hartzeko prest dago beti, baita ikerketak abiatu, dibulgatu eta zabaltzeko prest ere.

3.- Inguruko enpresa sarearekiko harremana handitu eta hobetzea, inguruko enpresak babestea eta Unibertsitatea-Enpresa harremanean erreferente izatea.

4.- Araban erreferente izatea, eta jendarteak nahiz interes taldeek Ikastegi prestigiotsu, moderno eta berritzaile gisa aitortzea; izan ere, ingeniariaritzako arloan prestakuntza bikaina eskaintzeaz gain, giza balio eta balio sozial ereduak transmititzen ditu, baita garapen jasangarriarekiko eta gizarte erantzukizunarekiko konpromisoa ere, inguruaren beharrezkoekin errotatuta.

5.- Langileen, UPV/EHUren beraren eta gainerako unibertsitateen errekonozimendua lortzea, ingeniariaritzako arloan erreferente gisa, eta aurrerapen profesionalerako, irekitasunerako eta lankidetzarako duen borondatea aitortzea.

5. BALIOAK

Erakunde orok ditu berezko ezaugarriak, gainerakoetatik bereizten eta bere izaera islatzen dutenak. Printzipio sendoak daude erakundearen beraren eta berau osatzen duten pertsonen oinarrian, eta horiek gidatzen dituzte Ikastegiaren jarrerak, jokatzeko moduak eta erabakiak.

Ziklo estrategiko bakoitzean funtsezkoa da balio jakin batzuk bultzatzea, erakundeak markatutako norabidean aurrera egin dezan. Eskolako kide guztiek hartu behar dituzte beren gain balio horiek, haien esku baitago planifikatutako ekintzak ezartzeko ardura.

Bide horretan, eta eginkizuna nahiz ikuspegia kontuan hartuta, VGIEk berrikusi eta eguneratu egin ditu Plan hau aurrera eramateko beharrezkotzat jotzen dituen balioak.

Horretarako, aurreko Plan Estrategikoan jasotako balioak aztertu dira eta, hausnarketa egin ondoren, ziklo estrategiko berrirako egokienak direnak hautatu dira. Hauek dira planean jasotako balioak:

- Jarrera berritzailea eta zerbitzurako borondatea.
- Profesionaltasuna.
- Konpromisoa eta erantzukizuna.
- Lankidetzeta eta koordinazioa.
- Gure jarduerak interes taldeetara bideratzea.
- Ingurumen balioen eta balio etiko eta sozialen errespetua eta babesa.
- Malgutasuna eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna.
- Partaide sentimendua.

6. HELBURU OROKORRAK

- Prestakuntza eskaintza bikain eta kalitatezkoa sustatzea eta ematea, langileen eta, oro har, jendartearen beharrian eta itxaropenak kontuan hartuta.
- IRIen irakaskuntza gaitasunak eguneratzea eta garatzea.
- Irakaskuntzan berrikuntza sustatzeko jarduerak bultzatzea, ikastegiari dagokion prestigioa emate aldera bai toki eta nazio mailan, bai nazioartean.
- Ikastegiko langileen ikerketa jarduna bultzatzea.
- Esparru industrial eta sozialarekiko lankidetzeta eta aliantzak sustatzea.
- Barne mailan jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozedura ezartzea, etengabeko berrikuntzarekiko konpromisoa gauzatze aldera.
- Kalitate politika interes talde guztiek ulertu eta onartu dutela ziurtatzea.
- Kalitatea Kudeatzeko Sistemak eraginkorra izaten jarraitzen duela eta aldian-aldian kontrolatu eta berrikusten dela bermatzea.

7. ZEHARKAKO ARDATZAK

Zeharkakotasunaren ikuspegitik, bektore hauek Planaren Ardatz Estrategiko guztiak zeharkatzen dituzte, eta aukera ematen digute ardatz bakoitzean ekintzak zehazteko:

Nazioartekotzea: Atzerriko ikasleek egiteko moduko irakasgaiak eskaintzeko gaitasuna hobetzea.

GJH: Garapen Jasangarrirako Helburuak irakasgaien programazioan txertatzea.

Eraldaketa digitala: Garatu diren teknologiak ikasketa prozesua hobetzeko aprobetxatzea.

Komunikazioa: Komunikazio prozesua ikastegiko hainbat esparrutan txertatzea.

8. ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Ikuspegian ezarritako helburuak lortzeko VGIEk abiatzen dituen neurrien multzoa da Estrategia. Ikastegiko baliabideak, prozesuak eta pertsonak nola bideratuko diren definitzean datza, betiere ikuspegian adierazitako asmoak errealitate bilaka daitezzen bilatuz.

ZER lortu nahi den adierazten du Ikuspegiak, eta Estrategiak, ordea, adierazten digu NOLA konbinatu behar diren baliabideak Ikuspegia gauzatzeko. Ikuspegiaren ildoak lortzeko, hortaz, VGIEko lantaldeak zenbait helburu estrategiko bildu ditu bost ardatz estrategiko hauetan:

1. Prestakuntza
2. Ikerketa eta transferentzia
3. Kultura eta jendartea
4. Pertsonak
5. Gobernantza eta baliabideak

Bestalde, Plana hedatzeko, helburu estrategikoak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren ekintzak definitu dira. Hauek dira helburu bakoitzari lotuta gauzatu behar diren ekintzak:

1. ARDATZA: PRESTAKUNTZA

Funtsezko ardatz estrategikoa da prestakuntza, eta lotura estua du VGIEren Eginkizunarekin. Bikaintasunaren bidean aurrera egiten jarraitzeko, beharrezkotzat jotzen da prestakuntza eskaintza dinamiko eta nazioartekoa sendotzea, prestakuntza dualaren eskaintza bultzatzea, berezko prestakuntza sustatzea, enplegarritasuna indartzea eta GJHen esparruan I3 eredu indartzea.

1.1 Helburu estrategikoa. Gradu eta graduondoko ikasketen eskaintza dinamiko eta nazioartekoa lortzea.	
Ekintza estrategikoak	
1.1.1 EE. Atzerriko unibertsitateekin gradu bikoitzen eskaintza sustatzea eta finkatzea (EHU_F#1.2).	Gradu bikoitzetarako hitzarmenak sinatzea Txile eta Alemaniako unibertsitateekin.
	Gradu bikoitz horiek sustatzea azoketan, orientazio jardunaldietan, ...
	Webgunean zabalkundea ingelesez egitea.

1.2 Helburu estrategikoa. Prestakuntza dualeko eskaintza bultzatzea Gradu, Master eta Doktorego ikasketetan.	
Ekintza estrategikoak	
1.2.1 EE. Master ikasketen eskaintza sortzea.	Adimen Artifizial Industrial eta Ordenagailu Bidezko Ingeniaritza Masterra martxan jartzea.
	Enpresak Masterrean inplikatu daitezen sustatzea.
	VGIEren graduondoko eskaintza UPV/EHUren 2030eko Graduondokoen Planean txertatzen saiatzea.
1.2.2 EE. Industria arloko nazioarteko doktorego programa sor dadin sustatzea, ibilbide osoa bermatzeko aukera eskaintze aldera.	Errektoregoarekin eta erakundeekin negoziatzea, AAIren arloko doktorego programa berria sortzeko.
1.2.3 EE. Prestakuntza duala ezagutzera ematea (EHU_F#2.4).	Prestakuntza dualaren emaitzak jakinaraztea (jardunaldiak, kongresuak, etab.)

1.3 Helburu estrategikoa. Berezko prestakuntza sustatzea.	
Ekintza estrategikoak	
1.3.1 EE. Etengabeko prestakuntza ikastaroen eskaintza zabaltzea (EHU_F#4.1).	Mikrokredentzialen prestakuntza bultzatzea.
	Espezializazio Diplomen prestakuntza sustatzea (30-59c).
	Aditu Diplomen prestakuntza sustatzea (<30c).
	Prestakuntza arautuaren eskaintzaren eta etengabeko prestakuntzaren arteko lotura sustatzea.
	Inguruko erakunde, eragile eta entitateekiko lankidetzatza sustatzea prestakuntza proiektuak garatzeko.
1.3.2 EE. Etengabeko prestakuntzaren kalitatea bermatzeko ereduaren egokigarritasuna aztertzea (EHU_F#4.2).	Berezko prestakuntza KBBSn txertatzea.

1.4 Helburu estrategikoa. I3 berezko ereduaren indartzea Garapen Jasangarrirako Helburuen esparruan.	
Ekintza estrategikoak	
1.4.1 EE. UPV/EHUko GJHak garatzeko ekintzen zabalkundea egitea.	Jasangarritasunaren arloan garatu diren proiektuen inguruko komunikazioa hobetzea.
1.4.2 EE. Jendartearen erronkei eta Garapen Jasangarrirako Helburuei erantzuneko dien eskaintza sustatzea.	Diziplina anitzeko lana bultzatzea, jendartearen erronkei erantzuteko eta UPV/EHUren katalogoko zeharkako gaitasunak eskuratzeko.

1.5 Helburu estrategikoa. Enplegarritasuna sendotzea.	
Ekintza estrategikoak	
1.5.1 EE. Titulazioen diagnostikoa egitea, enplegarritasunaren ikuspegia oinarri hartuta (EHU_F#5.2).	Tituludunen prestakuntza eta lan egoera aztertzea, genero ikuspegia oinarri hartuta.
1.5.2 EE. Gaitasun digitalen inguruko prestakuntza areagotzea (EHU_F#5.3).	Birtualizazioa bultzatzea.

2. ARDATZA: IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

Ikerketaren kudeaketa sailei eta ikertaldeei dagokien arren, garrantzitsua da VGIEk ere ikastegian ikerketa bultzatzea.

2.1 Helburu estrategikoa. Eskolako ikertaldearen arteko lankidetzaren sustatzea (EHU_I#1).	
Ekintza estrategikoa	
2.1.1 EE. Taldeen lan arloak ikusaraztea, horien arteko lankidetzaren sustatzea eta tradizio txikiagoko talde edo pertsonen parte har dezaten bultzatzea (EHU_I#1.5, EHU_I#1.3, EHU_I#1.2).	Esperientziak trukatzeko jarduerak antolatzea.
	Eremu komunean ikerketarako guneen erabilera sustatzea.
	Diziplina anitzeko ikerketa bultzatzea.

2.2 Helburu estrategikoa. Kanpoko aliantzak indartzea, tokikoak nahiz nazioartekoak (EHU_I#7).	
Ekintza estrategikoa	
2.2.1 EE. Unibertsitate-Enpresa gelak ugaritzea.	Eskolarekin garatzeko dauden ekintzen artean, Unibertsitate-Enpresa gelak sortzeko aukera eskaintzea enprekin egiten diren bileretan.
2.2.2 EE. Tokiko partzuergoak sor daitezkeen bultzatzea (EHU_I#7.2).	UPV/EHUK Robotekin ekosisteman parte har dezaten sustatzea.

3. ARDATZA: KULTURA ETA JENDARTEA

VGIEk, unibertsitateko ikastegi den aldetik, egiteko esanguratsua du jendartearen, ezagutzaren eragile eta ikerketaren nahiz aurrerapen teknologikoaren bultzatzaile baita. Hori dela eta, Plan Estrategikoa ezinbestean jaso behar ditu bokazio zientifikoak garatzera eta ezagutza sortu nahiz transferitzera bideratutako ekintza espezifikoak.

3.1 Helburu estrategikoa. Jendartearekiko komunikazioa hobetzea, baita ezagutzaren dibulgazioa eta kultura legatua ere.	
Ekintza estrategikoa	
3.1.1 EE. Unibertsitatearen komunikazio planaren prozedurak ezartzea (EHU_C#1.1).	Unibertsitateko komunikazio plana ikastegiari egokitzea.
3.1.2 EE. Komunikazio kanaletan egiten diren ekarpenak areagotzea (EHU_C#1.2).	Ikastegian komunikatzeko modukoak diren ekintzen inguruko prozedurak sortzea.

3.2 Helburu estrategikoa. Jendartearen kultura zientifikoa eta humanistikoa hobetzea, arreta berezia jarritz euskarari eta euskal kulturari.

Ekintza estrategikoak	
3.2.1 EE. Eskolan egiten den lanaren zabalkundea euskaraz izan dadin sustatzea.	Erakunde eta enpresentzako aurkezpenak hainbat hizkuntzatan sortzea, ikastegiaren kultura zientifikoa eta humanistikoa ezagutzera emateko.

4. ARDATZA: PERTSONAK

IRIak, TEKAZELak eta ikasleak funtsezko osagaiak dira ezarritako ikuspegi errealtate bilakatzeko. Hori dela eta, ezinbestekoa da ikastegian unibertsitateko kideen gogobetetzea, prestakuntza eta parte hartzea hobetzea.

4.1 Helburu estrategikoa. Lan individualaren eta kolektiboaren ospea eta aitortza sustatzea (EHU_I#4).

Ekintza estrategikoak	
4.1.1 EE. Ikastegiko kide sentimendua bultzatzea.	Langileen lorpenen berri ematea era sistematikoan, Eskolako Batzarraren, komunikazio bideen eta abarren bitartez.
4.1.2 EE. Ikastegiko langileen aitortza egiteko ekitaldiak antolatzea.	Langileen aitortza ekitaldiak antolatzea.

4.2 Helburu estrategikoa. Ikasle bakoitzak bere ikaskuntza prozesuan duen zeregin aktiboa eta erantzukizuna sustatzea (EHU_I#5).

Ekintza estrategikoak	
4.2.1 EE. Irakaskuntza metodologia berriak sustatzea (EHU_I#5.2).	Irakaskuntza metodologia berrien gaineko prestakuntza bultzatzea.
4.2.2 EE. Ikasleei laguntza psikologikoa, soziala eta hezkuntza arlokoa emateko ekimenen berri ematea.	Entzute eta Erantzute Sarean ikastegiko kideen presentzia areagotzea.

4.3 Helburu estrategikoa. Pertsonen egokitzapena eta prestakuntza indartzea, Unibertsitatearen eginkizuna eta ikuspegia aintzat hartuta (EHU_I#5).	
Ekintza estrategikoak	
4.3.1 EE. Ingeles gaitasuna sustatzea (EHU_I#5.3).	Ikasleek ingelesez emango diren prestakuntza jardueretan parte har dezaten erraztea.
4.3.2 EE. Euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea (EHU_I#5.4).	Euskararen erabilera sustatzea, jarduera kultural eta ludikoen bitartez.
	Matrikulazio hizkuntzari eustea prestakuntza prozesu osoan.
4.3.3 EE. Jasangarritasun helburuei lotutako jarduerak antolatzea (EHU_I#5.2).	Eskolako ekitaldiak antolatzeko orduan ingurumen jasangarritasunaren aldeko irizpideak ezartzea.

5. ARDATZA: GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK

Ardatz honetan finkatzen dira VGIEko kudeaketa aurreratuaren sistema hobetzeko ildo nagusiak, baita Eskolak jendartean duen presentzia sendotzeko eta eskura dituen baliabideak optimizatzeko ildo nagusiak ere.

5.1 Helburu estrategikoa. Erabakiak hartzeko orduan erantzukidetasuna eta inplikazioa sustatzea, batez ere gazteen artean (EHU_G#1).	
Ekintza estrategikoak	
5.1.1 EE. Ikasleek ordezkariak duten foroetan era aktiboan parte har dezaten bultzatzeko bitartekoak bilatzea.	Ikasleen artean esperientziaren transmisioa sustatzea.

5.2 Helburu estrategikoa. Norabide biko komunikazioa sustatzea ikastegiko zuzendaritzaren eta unibertsitateko kideen artean (EHU_G#3).	
Ekintza estrategikoak	
5.2.1 EE. Elkarlana sustatzeko bitarteko digitalak ezartzea eta bultzatzea (EHU_G#3.2).	Lankidetzarako Office365 erabili dadin bultzatzea.
	Informatika gela birtuala sustatzea.

9. ADIERAZLEAK

Ikuspegiak eta helburu estrategikoek agerian uzten dituzte Eskolaren asmoak. Horiei lotutako adierazleak, a priori, aukera ematen dute helburuak planteatzeko eta ondoren horien betetze maila ebaluatzeko.

Jarraian ageri den koadroan jasotzen dira, ordenaturik, ardatz estrategiko bakoitzerako helburu estrategikoak eta horiei dagozkien adierazleak.

Azpiraratzekoa da hemen jasota dauden adierazleak ez direla Ikastegiak kudeatu behar dituen bakarrak. Jasotako adierazleen bitartez kontrolatu, bideratu eta ebaluatu daiteke Ikastegiak 2024-2027 urtealdirako Plan Estrategikoaren bidean egindako aurrerapena.

1. Ardatza: Prestakuntza	
Helburu estrategikoak	Adierazleak
1.1 HE. Gradu eta graduondoko ikasketen eskaintza dinamikoa eta nazioartekoa lortzea.	Mugikortasun hitzarmenetan bazkide tutako unibertsitateen kopurua.
	Truke akademikoko programetan eskaintako plazen kopurua.
	Titulu bikoitzen eta/edo titulu bateratuen kopurua.
1.2 HE. Prestakuntza dualeko eskaintza bultzatzea Gradu, Master eta Doktorego ikasketetan.	Titulazio dualen kopurua.
1.3 HE. Berezko prestakuntza sustatzea.	Etengabeko prestakuntzan emandako ikastaroak eta berezko tituluak.
1.4 HE. I3 berezko eredia indartzea Garapen Jasangarrirako Helburuen esparruan.	Eskolaren parte hartzea eta inpaktu soziala duten erronken kopurua (CBL5, I3KD, ...)
1.5 HE. Enplegarritasuna indartzea.	Ikasketei lotutako enplegu tasa.

2. ardatza. Ikerketa eta transferentzia	
Helburu estrategikoak	Adierazleak
2.1 HE. Eskolako ikertaldearen arteko lankidetzaren sustatzea (EHU_I#1).	Ikerketaren Biurteko Jardunaldietan egindako aurkezpenen kopurua.
2.2 HE. Kanpoko aliantzak indartzea, tokikoak nahiz nazioartekoak (EHU_I#7).	Mugikortasun hitzarmenetan bazkide tutako unibertsitateen kopurua.
	Enpresekin eta bestelako erakundeekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenen kopurua.

3. ardatza. Kultura eta jendartea

Helburu estrategikoak	Adierazleak
3.1 HE. Jendartearekiko komunikazioa hobetzea, baita ezagutzaren dibulgazioa eta kultura legatua ere.	Ikastegiko memoria egitea.
	Ikastegiak antolatutako/babestutako dibulgazio jardueren kopurua (ekitaldiak, foroak, erakusketak...).
3.2 HE. Jendartearen kultura zientifikoa eta humanistikoa hobetzea, arreta berezia jarriz euskararen eta euskal kulturaren.	Eskolaren sare sozialetan egindako sustapen ekintzen kopurua.
	Ikastegiak antolatutako/babestutako dibulgazio jardueren kopurua (ekitaldiak, foroak, erakusketak...).
	Euskararen erabilera sustatzeko antolatutako jardueren kopurua.

4. ardatza. Pertsonak

Helburu estrategikoak	Adierazleak
4.1 HE. Lan indibidualaren eta kolektiboaren ospea eta aitortza sustatzea (EHU_I#4).	IRlek ematen duten irakaskuntzaren gaineko gogobetetze maila.
	TEKAZELEk garatzen duten lanaren gaineko gogobetetze maila.
	Egindako aitortzak.
4.2 HE. Ikasle bakoitzak bere ikaskuntza prozesuan duen zeregin aktiboa eta erantzukizuna sustatzea (EHU_I#5).	Jasangarritasun arloan egindako GRALen kopurua.
	Gomendatutako ikastaroen kopurua.
4.3 HE. Pertsonen egokitzapena eta prestakuntza indartzea, unibertsitatearen eginkizuna eta ikuspegia aitzat hartuta (EHU_I#5).	TEKAZELEk egindako ikastaroak.
	Irakasleek prestakuntza jardueretan duten parte hartze ratioa.
	Entzute eta Erantzute Sarean dauden IRlen kopurua.

5. ardatza. Gobernantza eta baliabideak

Helburu estrategikoak	Adierazleak
5.1 HE. Erabakiak hartzeko orduan erantzukidetasuna eta inplikazioa sustatzea, batez ere gazteen artean (EHU_G#1).	Ikasle berrien eta beteranoen artean egindako bileren kopurua.
5.2 HE. Norabide biko komunikazioa sustatzea ikastegiko zuzendaritzaren eta unibertsitateko kideen artean (EHU_G#3).	Eguneroko lanean Microsoft365 erabiltzea.
	Informatika gela birtualean izan diren sartualdiak.

10. LANTALDEA

Zuzendaritza taldea

Zuriñe Gómez de Balugera López de Alda
José Miguel Gil-García Leiva
Estibaliz Apiñaniz Fernández de Larrinoa
M^a Dolores Encinas Malagón
Amaia Mesanza Moraza
Francisco Javier Basogain Olabe
Ruperta Delgado Tercero
Alberto Zabala Bengoa

Ikastegiko Kalitate Batzordea

Irakasle-ikertzaileak

Isidro Calvo Gordillo
Igor Ansoategui Belategui
Gorka Gallastegui Ruiz de Gordoia
Mikel Larrañaga Olagaray
José Antonio Ramos Hernanz
Patxi García de Amezaga
Isidro Calvo Gordillo
Rosa Río Belver
Ainhoa Yera Gil
Leyre Torre Tojal
A. Ruth Fernández Acarregui
M. Inmaculada Tazo Herrán
Iñaki López Ferreño

TEKAZEL

María Gastón Quintana

Ikasleak

Fernando Sangiao Hernández
Belén Toledo Nogales

Ikastegiko Batzarra

Enpresak

Erakundeak